

Michel Arricar
Maule-Lextarre, Zuberoa (1883)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 30 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Maule-Lextarreko kapilaua zen. Montevideon (Uruguay) 1883. urtean jaioa. Euskalkia: zuberera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.198

Zintak

MAU-001

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-04
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Hiru istorio

- **Erref:** MAU-001/001
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:47

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Hiru istorio ezberdin entzun daitezke pasarte honetan. 1- Trenean doazen bi emakumeri buruzkoa. 2- Gaizkile bat epaile aurrera eraman zutenekoa. 3- Eztabaidan dabiltzan senar-emazte batzuk.</p>

Transkripzioa

Ixtoiak.

Lehena. Bördün bidian entzunik, behinere algar ezagütü etzien bi emazten artian: "Badüzia haurrik, madama?". "Bai, badit seme bat". "A, seme bat? Pipatzen dia?". "Ez, eztizü egündano zigarreta bat hunki". "Hobe segur tabakak gaitz egiten digü. Eta, badueia ostatilat?". "Eztizu behinere zankoik holako etxetan sarthü". "Hobe segur ezdütützü oro halako. "Erretiro huna dia? ala berant ützültzen zaizie etxeat?". "Ai hal eta berehala baduazü oherat!" A, arren zure semiak kundüta huna dizü. Zer adin dü?". "Bi hilabete, madama".

Etzien erri güti egin behazalek.

Bigerrena.

Gizon gazte bat tribunaliala eramanik da. Juje qehienak aitzinian ezarten deitzo egin dütian uhünkeriak eta gaizkiak oro eta erraiten deio azkenian: "Horra zertaratü zutian lagün gaistuekin ibiltiak...". "Lagün gaistuekin diozia Jauna? Enüzü ihuekin hain üsü agitü nola jaun jujiekin".

Hiugerrena.

Senhar emaztiak ari dira aharran... Senharrak emaztiari: "Ori Kattina, merexi zünükian khüso bat senhartako". Kattinak arrunt: "Hortakoz ere zurekin ezkuntü nüzü".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com